

@@@EDIKTUA, Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariarena, ondoren aipatzen diren espedientei buruzkoa.@@@

Mariano Cortés Sáez jaunak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariak, ediktu hau eman du:

EDIKTUA

328/2003 Dekretuko IV. kapituluan ezarritakoa betetze aldera, dokumentazio-eskakizuna berariaz jakinarazi nahi izan zaie beherago zehazten diren diru-laguntza espedienteen onuradunei, baina ezinezkoa izan da (328/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, Kultura ekintzailea eta enpresa sortzeko aukera babesteari buruzkoa). Eskatutako dokumentuak:

- Bazkide bakoitzaren lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako enpresen alten eta bajeziurtagiri eguneratua, enpresak jarraitzen duela egiaztatzen duena.
- Foru Ogasuneko ziurtagiri eguneratua eta bikoiztua, enpresa eskatzailea bere zerga betebeharreran egunean dagoela ziurtatzen duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Probintzia Zuzendaritzaren ziurtagiri eguneratua eta bikoiztua, enpresa eskatzailea bere obligazioetan egunean dagoela ziurtatzen duena.

Itzuli egin da aipatutako jakinarazpena, hainbat arrazoirengatik: espedienteen agertzen den helbidea oker dagoelako; eskatzaileak helbidea aldatu duelako, aldaketa horren berri eman gabe jakinarazpen ondorioetarako; edo beste arrazoiren bat egon delako.

Hori dela-eta, ediktu hau argitaratzen da EHAAn, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikulua eta aplikatu beharreko gainerako xedapen konkordanteak betetzeko.

Argitaratu eta biharamunetik aurrera, 15 egun baliodun ematen dira lehen aipatutako dokumentuak Enplegu eta Prestakuntzako Zuzendaritzan aurkezteko (Donostia kalea z.g., 01010 Vitoria-Gasteiz), bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

Era berean, ohartarazten da ezen, eskakizun hori bete ezean, edo adierazitako epea igarota betez gero, izapide horretarako daukaten eskubidean atzera egindakotzat deklaratu ahal izango direla eskatzaileak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. artikuluari jarraikiz; eta hori gertatuz gero, emandako diru-laguntza itzultzeko espediente hasiko dela, dekretu arautzailearen 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoa betez.

Espediente-zenbakia:

Enpresa:

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 17a.

Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaria,
MARIANO CORTÉS SÁEZ.